

Eskolako Historia liburu bat atera du Ikas-ek Euskal Herritik ikusirik

Maite Urmeneta irakasleak XIX. mendeaz egin du liburua kolegioko laugarrenkoentzat
• Ikasgelan ustiatzeko tresnak gehitu dituzte

Iñaki Etxeleku

Maite Urmeneta Historia-Geografia irakasleak XIX. mendeko Historia liburua argitaratu du Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua-rekin. Kolegioko laugarren mailako ikasleen programarako pentsatua da, eta Euskal Herriko erreferentziekin egina. Horrez gain, ustiapen pedagogikorako tresna bat baino gehiago pikoan eman dituzte irakasleentzat.

«Frustrazio luze baten ondorio» izan dela salatu du Maite Urmenetak. Frantziako Hezkuntza Ministerioak ditu programak finkatzen. Azkenean, Historia, Frantziako Estatuaren ikuspegitik ekarria zaie ikasleei irudimenean. Urmenetak erabaki zuen lanari lotzea, Euskal Herriko ikuspegira eartzeko. «Ohartu naiz nehorik ez zuela eginen; guhaurrek egin behar genuela». Urteetako buruhaustea zuen, gainera: «Nola uztartu programa ofiziala eta gure Historia?». Lortu du, eta Frantziako Hezkuntza Ministerioari ordezkariak ontzat eman du. «Ikuskariak prezatu du, eta begi onez ikusi. Hemendik goiti, ikusiko».

Mendeari lotuak zaien Euskal Herri guziko elementuak sartu ditu, horra arte Ipar Euskal Herriko ikasleei erakusten ez zitzaizkien: «Eman dezagun, XIX. mendean, karlistaldiak; hemen ez dira ikasten».

Industria, nazionalismoa

Industrializazioaren garapen mendea da XIX.a. Euskal Herriak ere ezagutu du, nahiz desberdin-

tasun handiak izan Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren artean. Halere, Hazparneko eta Mauleko zapatagintza, Baionako olak eta Bizkaiko meatzengintza elkartu ditu liburuan Urmenetak. «Bistan da Iparraldeak ez duela Europa mailako eta Bilboko industrializazio maila ukan, baina, halere, Hazparneko zapatagintza biziki inportantea izan da hemengo».

Orduko beste errealitate bat aipatzen da liburuan, adin bertsuko ikasleentzat gogoetagai izan daitekeena: haurren lana. Hor ere, Euskal Herriko irudiak bildu ditu. «Betidanik banuen irudi klasikoak, liburuetan agertzen dena:

Urmenetaren liburua paperean edo formatu digitalean da; bideoa ere irudi bankua ere eskuragarri dira

Ingalaterrako eta Eskoziako haurrak ehungintzan lanean ari, ortutsik». Euskal Herriko irudiak xerkatzean, laster oharatu da ez zela hain urrun joaterik, Zuberoan eta Bilbon ere bazirela argazkiak. «Ohartu naiz aski errazki idealizatzen dugula norberak bere Historia. Badira errealitate gordina erakusten duten puntu batzuk». Gainera, Frantziako Hezkuntza Ministerioak behartu programatarik irudimena handik ekarria da liburuetara. Euskal Herriko irudimen bat ekarriz, gaia ez du «erakargarriago» baizik egiten. «Ez da batere zaigu bera; bestean iruditzen zaigu dena biziki urrun gertatu dela».



XIX. mendeko Mauleko zapatagintza fabrikako irudi bat, *Ainarak* deitu langileekin. IKERZALEAK

XIX. mende erditsuan gizarte oldartzeak gertatu ziren European gaindi. Karlistaldiei buruzko atala sartu du liburuan egileak, Euskal Herria ez baitzen oldarraldi horietatik aparte bizi. «Nihaur oharatu naiz zentzua zuela Frantziako Iraultzatik landa aipatzea. Frantziako Iraultzak Frantziako Historian leku anitz hartzen du, eta, azkenean, horren segida da; ez da, esplikatu ziguten bezala, errege ondorengoan kalapita bat. Europako mugimendu orokorra gote batean sartzen da», ondorioztatu du Urmenetak.

Kapitulua berean, Agosti Xahoren eta Sabino Arana Goiriren figurak ekarri ditu; Europa zeharkatu zuten nazionalismoen inguruko gogoeten seinale. «Gaurko nazionalismoa eta egoerak ulertzeko horraino joan behar da; ikusteko noiz galdu ditugun gure antolaketa propioak, eta noiztik hasi ziren horien aldarrikatzen».

Europatik kanpoko inperioen kolonizazioak ere aipagaietan dira. Irakasleen arabera, ezberdina izan daiteke aipua. «Gehiago sartu naiz konkistan eta horren ondorioetan», esplikatu du Maite Urmenetak. Gaur egungo itxuratzeko batzuk baliatzeko parada izan zaio liburua, gainera, «jakin-mina pizteko». Jean-Louis Davantek idatzi eta berriki eman den *Abdelkader* pastoralaren azala jarri du kolonizazioaren ilustrazioetan. «Historia ondarearen balorizatzea ere bada, eta saiatu naiz ahal den guzietan lotura egitea aktualitatearekin, kultur eragileekin; interesa pizten ahal duen kasu guztiekin». Ber gisan egin du euskararen debeka-



Bizkaiko haur meatzari bat. MUSKIZKO UDAL ARTXIBOA

tza aipatzeko atalean, Josu Martinezen *Anti* film laburreko irudi bat txertatuz. «Gure ikasleek halakoak ikusten dituztelako».

Liburua ezagutarazi

Orain, bigarren mailako Historia-Geografia irakasleei ezagutarazi behar die liburua Ikas-ek. Urmenetak ez du baztertzeko formakuntza edo aurkezpen egun bat egitea erakusteko. Azpimarratu du berriki irakurteko bat dela liburua-rekin proposatuak diren euskarriena. «Liburua paperean edo formatu digitalean badute, eta horrekin ustiapen pedagogikoa, gehi bideo batzuk, irudi bankua. Gaur egun, irakasle batentzat frantses munduan diren erraztasun horiek guztiak Historian ez ziren orain arte, euskaraz».

Ez dira horretan gelditzekoak Urmeneta eta Ikas, XIX. mendean ondortik, XX. mendeari lotuko baitzaizkio urte hondar honetarik goiti. «Abentura handia izan da, eta pentsatzen du fiteago joanen dela aldi honetan».

AURKITEGIA

Maite Urmenetaren *Historia, XIX. mendea* liburuko kapituluak.

Europa eta Industria Aroa

Atalak. Industriaren hastapenak; garraioen iraultza; kapitalismoa; ideologia berriak; emigrazioa; ingurumenaren suntsiketa hasten; industrializazioa Euskal Herrian.

1848ko udaberria

Atalak. Herrien udaberria; Frantziako II. Errepublika; karlistaldiak; Xaho eta Arana.

Kolonizazioa

Atalak. Mundua Europaren mende; kolonien konkista; gizarte kolonialak; esplorazio zientifiko eta kulturalak.

Frantziako III. Errepublika

Atalak. Hasiera zailak eta Parisko Komuna; nazio laikoaren eraikuntza; Euskararen debekua; emazteen eskubideen aldeko borroka; *Dreyfus afera*.

berria lagun iragarlea

LAFITTE
Jardinerie

Kanboko bidea
Maignon itzulguenea - 64100 BAIOMA

www.lafitte.net